



Barrenak askatzeko ariketa Abend Kafe Antzokian.– Hainbat herritarrek ‘Ez gara Palestinaz ari’ emanaldiaz gozatu zuten atzo, Abend Kafe Antzokian. Xumela abesbatzak hamar urte betetzen ditu aurten, eta hainbat ekitaldi ari da antolatzen hilabeteotan, bart arratsaldekoa barne. Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariek sortutako ikuskizuna da; Imanol Kamio eta Aitor Atxega musikariek batera oholtzaratu ohi dute. “Beti bizi gara kanpora begira, Palestinan, Sirian edota Euskal Herrian bertan gertatzen direnei buruz hitz egiten dugu etengabe, baina gutxitan jartzen gara ispiluaren aurrean gu geu aztertzen”, esan ohi du Muñoak, ekitaldiari buruz aritzen denean. Ariketa hori egitea proposatu zieten bi bertsolariek Abendera bertaratutako ikus-entzuleei: norbere burua ispiluaren aurrean ipintzea eta barreneko sentimenduak askatzea. Ikuskizunaren pasarte batean, Xumelako kideak ere igo ziren oholtza gainera, abestietako batean parte hartzera. Ekitaldi amaieran, txalo zaparrada luze batekin saritu zuten ikusleek batzuen eta besteen jarduna. Bi urte eta gero, emanaldiaren sortzaileak berriro aritu ziren Lasarte-Orian.

3 HITZARMENA

2.000 euroko diru laguntza Gipuzkoako Odol Emaileentzat

Akordioa sinatu zuten iragan astean Lasarte-Oriako Udalak eta Gipuzkoako Odol Emaleen elkarteak. 2.000 euroko laguntza jasoko dute bigarrenek aurten, euren ekintzak aurrera eramateko. Besteak beste, hamabi odol-donazioaldi sustatuko dituzte 2016an zehar. Euskara bultzatzeko konpromisoa ere hartu dute.

5 UDALA

30 urte, hainbat mende eta milaka oroitzapen

Larunbatean hasi zituen Udalak Lasarte-Oria udalerrri gisa eratu zeneko 30. urteurrenaren ospakizunak. Julian Sagardiarren bideoaz eta ‘Gogoratzen duguna gara’ diaporamaz gozatu zuten hainbat ikusle kultur etxean, larunbatean. Brigitarren komentuko mezan udal ordezkariak egongo dira gaur, 11:00etatik aurrera.

8 ELKARRIZKETA

Naiara Garcia, Psikosolidarioak egitasmoko kide

Hasieratik egin zuen Psikosolidarioak proiektuarekin bat Naiara Garcia herritarra. Bertako kideek aldarrikatzen dute Osakidetza osasun zerbitzuak arreta psikologikoaren alorrean egiten duen eskaintza ez dela behar bezainbestekoa. Egitasmo horren nondik-norakoak azaldu dizkio Garciak TXINTXARRI-ri, luze eta zabal.



Bertsu gutiziak

**ANDONI EGAÑA
MAIALEN LUJANBIO
AITOR MENDILUZE
ELIXABET PAGOLA**

Otsailaren 19an, 19:00etan Basque Culinary Center-en

ONDOREN
**GUTIZIA BEREZIZ OSATUTAKO
BERTSO LUNTX-AFARIA**

Gaijartzailea:
JOXE LUIX
URDANGARIN

Sarrerak salgai
HERNANI **Kronika, Kixkal, Aralar**
ASTIGARRAGA **Ikatz**
EREÑOTZU **Irintzi**
GOIZUETA **Amaia kafetegia**

20€

ANTOLATZAILEA
**URUMEAKO
Kronika**

LAGUNTZAILEA
INSALUS

ISLADA EZKUTATUAK

Txaldataxur mendira irteera igandean

Bisita gidatua antolatu du Islada Ezkutatuak taldeak; oraingo honetan, gaztelaniaz

Islada Ezkutatuak taldeak Txaldataxur mendian egindako aurkikuntza garrantzitsuak bertatik bertara ikusterik izan ez zutenek, aukera edukiko dute igande honetan. Ere horretara bisita gidatua antolatu du taldeak; azalpenak gaztelaniaz emango dituzte oraingo honetan –euskarazko bisita ekainean egin zuten–. Okendo plazan jarri dute hitzordua, goizeko bederatzietan. Eguraldi txarra egingo balu, ekitaldia beste egun baterako utziko lukete.

1 936ko altxamendu militarra eta gertakari horrek Lasarte-Oria izan zituen ondorioak aztertzen ditu Islada Ezkutatuak taldeak. Badaramatzate jada zenbait urte garai historiko horren azterren bila.

Hainbat aurkikuntza egin dituzte lanean hasi zirenetik. Azkenekoak, Txaldataxur mendian. Errepublikarrek eskuz egindako 22 lehergailuren piezak topatu zituzten garai horretan lubaki izandako lur eremu batean.

Ekainean antolatu zuen taldeak lehenengo bisita gida-

tua. Txaldataxur eta inguruak ezagutzera animatu zirenek euskaraz jaso zituzten azalpenak orduko horretan, Joxe Agustin Muguruza eta Mailu Arruti kideen eskutik.

Igande honetan beste bat egiteko asmoa dute; azalpenak gaztelaniaz emango dituzte. Okendon jarri dute hitzordua, 9:00etan. Ordu eta erdi inguruko ibilaldia izango dela jakinarazi dute antolatzaileek; gomendatu dute oinetako erosoak eramateko, ahal izanez gero. Deskuidoen eguraldi txarra egingo balu, atzeratu egingo lukete bisita.



Ekainean egin bezala, Txaldataxur mendira bisita gidatua antolatu du Islada Ezkutatuak taldeak; oraingo honetan, gaztelaniaz.

Errepublikarren gunea

Buruntza eta Andoain aldetik zetozen Karlitei aurre egiteko baliatu zuten Txaldataxur mendia errepublikarrek. Birritan aritu ziren borrokan bi bandoak, eta bietan irabazi zuten errepublikarrek. Ekaineko bisitan Joxe Agustin Mugu-

ruzak azpimarratu zuenez, gubernamentalek ez zeramaten armamentu astunik; bertan topatutako hainbat bala zorro aztertu ostean atera zuten ondorio hori Islada Ezkutatuak taldeko kideek.

Lubakiak, errepublikarrek komun gisara erabiltzen zuten

eremua eta tiratzaileen hobiak bisitatu zituzten hainbat herritar eta zubietarrek.

Gune hori arakatzen ari da taldea oraindik; zenbait giza-gorpu oraindik hobiratuta daudela zehaztu zuen Mugu-ruzak, ekainean egin zuten bisita gidatuan.

El Duesoko espetxera martxa antolatu dute larunbaterako

Lasarte-Oriako ezker abertzaleak El Duesoko espetxera (Kantabria) joateko martxa antolatu du larunbaterako. Autobusa goizeko zazpietan irtingo da erdialdeko biribilgunetik, eta 17:00ak aldera bueltatuko da herrira. Txartelak salgai daude oraindik 10 euroan, taberna haue- tan: Ilargi, Trumoi, Elurtza, Gure Etxea eta Artizarren. Antolatzaileek jakinarazi dute “dezente” saldu direla dagoneko, eta herritarrei “lehenbailehen” erosteko ohartarazi, biharko eman nahi baitiote forma irteerari.

Larunbaterako egitaraua ere ari dira prestatzen antolatzaileak. Oraindik ez dute erabat zehaztu, baina jakina-

razi dute Rafa Diezek jasoko duela bisita bat. Gainera, hamaiketako egiteko aukera edukiko dute martxara doazene- nek; hala ere, egun osoko plana izango denez, norberak janaria eramatea ere aholkatzen dute. Musikaz girotua egingo da irteera, ziurrenik.

Sei preso politiko herritar

Ezker abertzaleak gogorarazi du herritarrek diren “sei preso politiko” daudela “haien oinarritzko eskubideen aurka espainiar eta frantziar espetxeetan sakabanatuta”: Aitzol Iriondo Moulin Yzeure espetxean (697 kilometrorra), Ibon Fernandez Lannemezanan (237 km.), Peio Eskisabel Uzerchen (470 km.), Javi Gallaga Kordoban

(841 km.), Santi Arrozpide Estremeran (512 km.) eta Rafa Diez bera El Dueson (163 km.).

Otsailaren 20ko martxaz gain, EPPK Euskal Preso Politikoen Kolektiboko kideek hainbat ekimen burutuko dituzte otsailaren 15etik 20ra bitartean, “larriki gaixo dauden presoek askatasuna” eskatzeko: itxialdia, bazka-errefusa, propaganda ekimenak eta planto informatiboak, besteak beste. Otsailaren 20an bertan, larunbatez, guztiek baraualdia burutuko dutela iragarri dute.

'Abian' gogoeta prozesua


Espetxeetara martxa antolatzearekin batera, ezker abertzaleak nahi du presoek



Hainbat herritarrek egin zuten bat egitasmoarekin, larunbatean.

‘Abian’ gogoeta prozesuan parte hartzea. Egitasmo hori “herriz herri egiten hasiak” direla zehaztu du ezker abertzaleak, eta “lehen batzarra epe motzean” egingo dutela.

“Ezker abertzaleko oinarri militanteari eta kideetza sozialari” luzatzen die gonbita; “elkarrekin eztabaidatzea eta erabakiak hartzea” dira helburu gusiak.

Diruz laguntzen duten erakundeak**Babeslea**

LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea**Argitaratzailea:**

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri**Erredakzioa:**

Nerea Eizagire, Martin Vicioso,
Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

ODOL EMATEA



Jesus Maria Zaballos alkateak eta Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak Jose Usabiagak sinatu zuten ituna, ostiralean.

Odol-ematea sustatuz

Hamabi donazio-aldi programatuko dituzte

Lasarte-Oriako Udalak eta Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak hitzarmena sinatu dute. Ondorioz, 2.000 euroko laguntza jasoko du elkarteak eta, besteak beste, 2016an hamabi donazio-aldi programatzeko konpromisoa hartu dute.

TXINTXARRI

Odola ematearen garrantzia nabarmendu zuen alkate Jesus Maria Zaballosek, ostiralean Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearekin sinatutako itunaren ekitaldian, eta hauek Lasarte-Orian egiten duten lana goraiatu. Emaileen izenean Jose Usabiaga Belokik sinatu zuen hitzarmena.

2.000 euroko laguntza horrek elkarteari lagunduko dio 2016an Lasarte-Orian bere jarduerak aurrera eramaten.

Konpromisoa

Hala, urte honetan hamabi donazio-aldi programatu eta

aurrera eraman beharko ditu Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak. Halaber, Lasarte-Orian odol ematea eta ekintzak duen garrantzia sustatu beharko dute, gizarteari eragiten dizkion onurak adieraziz.

Euskara bultzatzeko konpromisoa ere hartu dute. Izan ere, itunean zehaztu dutenez, egiten diren kanpaina guztietako dokumentu, eskuorri edota informazio orriak euskarazkoak edota elebidunak beharko dute izan.

Odol emaile berrien bila

50 urte bete zituen aurreko urtean Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak, eta Lasarte-Oriakoak 48 egingo ditu 2016ean.

Hilabetero, hileko azken astelehenean biltzen dira emaileak Osasun Zentroan 17:30etik 20:30era.

Azaldu zuten, "gazte jendearen beharra izaten dute". Izan ere, hauteman dute 20 eta 30 urte bitarteko emaile gutxi daudela gaur egun.

Usabiagak aitortu zuen "hamar minutuko kontua besterik ez dela izaten", eta bakarrik 450 cc ateratzen dituztela. Ondoren, mokaduxo bat emateko ohitura dute.

Eskertza

Alkate Jesus Maria Zaballosek Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak egiten duen lana eskertu zuen, baita odola ematera gerturatzeko diren lasarteoriarrena ere.

Osasun sistemak eta operazio gelak "haiei esker" funtzionatzen dutela azpimarratu zuen, azkenik.

HITZALDIA

Arreta Faltaren Nahasmenduari eta Hiperaktibitateari buruzko hitzaldia

Asteartean 18:30etan ADAHIGI elkarteak Arreta Faltaren Nahasmenduari eta Hiperaktibitateari buruzko hitzaldia eskainiko du Manuel Lekuona kultur etxean.

Nahasmen hauek antzemateko jarraibideak ematea da hitzaldiaren helburua. Azaldu dutenez "guraso askok jakin nahiko luke, besteak beste, noiz kezkatu, zer egin eta haurra nola lagundu".

AMARAUN KLUBA

'Eskuekin trebatu, ikasi eta jakin' tailarrean apuntatu daiteke oraindik

Asteon hasiko da Amaraun Klubak prestatutako 'Eskuekin trebatu, ikasi eta jakin' tailerra. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, asteazkenetako saioetan plaza libreak daude oraindik, norbaitek izena emateko interesik edukiko balu.

Gaztetxoek eskujolasak, masajeak, eskulanak edo txotxongiloak egin eta zeinu hizkuntzako oinarritzko zeinuak ikasiko dituzte.

Bi txanda izango dira, bata asteazkenetan, otsailaren 17an hasi eta martxoaren 16an bukatuz eta bestea ostegunetan, otsailaren 18tik martxoaren 17ra. Biak 17:45etik 19:15era izango dira. Tailerraren prezioa 13 eurokoa da Ttakuneko bazkideentzat eta bazkide ez direnek, 16 euro ordaindu behar dituzte. Izen-ematea Ttakun elkarteak bulegoan, 943 37 14 48 telefonoan edo aisia@ttakun.eus helbidean egingo da.

IPAR MARTXA

Hainbat herritar atzo Aspanogik antolatutako IV. martxa solidarioan

Aspanogi Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarteak martxa solidarioa antolatu zuen atzo, laugarrenez. Hainbat herritar animatu ziren, Ipar Martxako makilak eskuetan hartuta, Zurriolatik hasi eta Haizeen Orrazirainoko ibilbidea burutzen. Eguraldia oso ona izan ez bazen ere, giro ederrean igaro zuten goiza lasarteoriarrek. Jendartearen gero eta arrakasta gehiago duen kirol modalitatea da Ipar Martxa. Frogatuta geratu zen hori atzoko egunean, 300 pertsonak baino gehiagok hartu baitzuten parte ekitaldian.



Diru-laguntza jasoko dute 12 elkarteak

Gizarte zerbitzuetako sailak jakinarazi duenez, 13.664 euroko diru-laguntza banatuko da 12 elkarteren artean.

Behar bereziak dituzten pertsonekin lan egiten duten elkarteak dira denak.

Diru-laguntza ondorengoei eman zaie:

ATECE Burmuineko kalte hartua duten pertsonen laguntzeko programa, ADEMG esklerosi anitza lantzen duena, ADSIS Fundazioaren Gazteak eta Kulturartekotasun programa, ADAHIGI Arreta Faltaren Nahasmendua eta Hiperaktibitatea duten umeen hautemate proiektua, AGIFES Burmuineko gaixotasunak



Lagundutako elkarte bateko kideak, AGIFESekoak, iraganean egindako hitzaldi batean.

duten pertsonen arreta zuzena ematen diena, GAUTENaren udaleku irekiak, Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkarteak, Pausoka Elkarteak, Martuteneko espexeko presoentzako asistentzia ematen duen Izan Fundazioa, ATZEGI familiei

laguntza emateko programa, Gipuzkoako Ikusmen Urrikoen Elkarteak eta Arantzazuko Amaren Parrokiako Ostarte Gazte Taldea programa.

Beste bi elkarteri ezetza eman behar izan zaie baldintzak betetzen ez zituztelako.



Kalteak Rekalde poligonoan, luizi batengatik

Garabi batek eta bi furgonetak kalteak jasan zituzten ostiral arratsaldean, luizi baten ondorioz. Rekalde poligonoan gertatu zen ezbeharra, 14:10 aldean. Ez zebilen langilerik inguruan une horretan; hortaz, kalteak materialak besterik ez dira izan. Suhiltzaileak eta udaltzainak joan ziren hara, gertatutakoa ikusi eta kalteak neurtzera.

Ostiral arratsaldean poligonoa bertaratu ziren Jesus Zaballos alkatea eta Agustin Valdivia Hirigintza zinego-

tzia, bertako jabeekin hitz egitera eta luiziak eragindako kalteak ebaluatzen. Horrez gain, Bidegirekin ere hitz egin zuten. Alkatearen esanetan, erakunde horretako arduradunek bermatu dute bigarren gerrikoa ez dagoela arriskuan.

Astelehenera arte ez dute hartuko erabaki irmorik; teknikariak joango dira poligonoa egun horretan. Bitartean, luizia gertatutako gunerak sartzeko bidea itxi egin du Udalak, segurtasun arrazoiak direla kausa.

Palestinatik Lasarte-Oriara

Oihan Agirretzek abuztuan brigadista gisa egindako bidaia izan zuen hizpide

Abuztuan brigadista moduan Palestinara egindako bidaiaren nondik-norakoak azaldu zituen Oihan Agirretxe gazteak ostiral arratsaldean, Villa Mirentxun. Dozenaka herritar gerturatu ziren 'Lasartetik mundura, mundutik Lasartera' zikloko bigarren hitzaldira.

TXINTXARRI

Palestinako egoera bertatik bertara ezagutu eta hemen ezagutarazteko helburuz egin zuen bidaia Oihan Agirretzek, abuztuan. Ostiral arratsaldean egin zuen ariketa hori, Villa Mirentxun, aretora bertaratutako 50 bat herritarren aurrean. 'Lasartetik mundura, mundutik Lasartera' zikloaren bigarren hitzaldia izan zen, lasarteoriatar batek eskainitako lehenengoa. AldarriCATuz-eko lagunek eskaini zuten aurrenekoa, orain dela bi aste atzera, Villa Mirentxun bertan.

Hiru astez bertan bizitako esperientzia partekatu zuen entzuleekin, eta baita hainbat alor jorratu ere: historia, kokapen geografikoa, Aida errefuxiatu gunean bizitakoak, Hebron herria, biztanle palestinarren prekaritatea eta beste batzuk.

"Jazarpen etengabea"

Agirretzek behin eta berriro errepikatu zuen ideietako bat honakoa izan zen: "Judutar sionisten etengabeko jazarpena pairatzen dute palestina-

rrek, euren eguneroko bizitzan".

Hainbat adibide jarri zituen hori ilustratze aldera: kolono israeldarrek nola kentzen dizkieten etxebizitzak, ortuak eta antzeko jabetzak palestinarrei, egun batetik bestera. "Horrelako ekintzak burutzeko beti darabilte argudio bera: jainkoak erabaki duela israeldarrei lur horiek ematea", azaldu zuen.

Prekarietatea

Agirretzek zehaztu zuenez, prekaritatean murgilduta bizi dira palestinarrek.

Aida errefuxiatu guneak bizimodua jarri zuen exenplutzat: "Ura, adibidez, israeldarren esku dago; hilean behin ematen diete palestinarrei. Osasuna eta hezkuntza aldetik ere baldintzak oso kaxkarrak dira, zaborra kaleetan sakabanatua dago, eletrizitatea eskuratu ahal izateko ere trikimailu asko egin behar dituzte, industria-gunea suntsitu zuten israeldarrek, denda eta komertzioak oso txikiak dira... Prekaritatea ikaragarria da biztanle palestinarren egunerokotasunean".



Jendetza gerturatu zen ostiral arratsaldean Villa Mirentxura, Oihan Agirretxeren hitzaldia entzuteran.

Brigadista lana

Askapenaren brigada batekin bidaiatu zuen Oihan Agirretzek Palestinara, hiru astez, abuztuan. "Sekulako esperientzia" izan dela nabarmendu zuen ostiraleko hitzaldian, "subidoiarekin" bueltatu zela, eta "edonori" gomendatzen diola esperientzia hori bizi-tzea noizbait.

"Bizi duten egoera muturrekoa izan arren, izugarria izan da niretzat ikustea nola egiten dion aurre herri palestinarrek horri, erakusten duten duintasuna. Haurrekin hitz egitean ere asko harritzen nintzen, oso kontziente dira

bizi duten errealitateaz, ez du hemengo mentalitatearekin zerikusirik", aipatu zuen.

Bideo-kronikak egiten zituzten egunero, bisitatu zituzten toki denetan, eta Askapenaren sare sozialetara eta YouTube kanalera igo gero, bertako egoeraren berri emateko mundu osoan zehar. Atzo aipatu zuenez, "arrakasta dezente" izan dute haiek eskegitako multimedia materialek.

Nazioarteko laguntza

Herritar gaztea eszeptikoa da palestinar gatazkaren konponbidearekiko, borroka

armatuari dagokionean batez ere: "Lehenengo bi intifadek gatazka nazioartean gizarteratzeko balio izan zuten, baina palestinarrek dituzten baliabideekin nekez egingo diote aurre munduko estatu armatuenetarik bati".

Era berean, nabarmendu zuen "ezinbestekoa" dela nazioarteko laguntzaren beharra, eta horrek asko eragin dezakeela konponbide prozesuan.

Atzo eguerdian olibondo bat landatzekoak ziren, Palestinaren zikloarekin jarraituz baina, eguraldi txarra tarteko, atzeratu egin dute ekitaldia.

Mendebaldeko Saharan erreferenduma egitearen alde

Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zela 40 urte beteko dira hilaren 27an. Urteurrena baliatuz Saharako Lagunak taldeak mozioa aurkeztu zuen astearteko udalbatzarrean.

Zenbait eskaera eta aldarrikapen onartu zituzten PSE-EEK, EH Bilduk, LOADk eta EAJk.

SEAD eta saharar herriaren autodeterminazio eskubidea onartu dituzte, besteak beste. Halaber, "giza eskubideen aurkako erasoak salatu" eta "aktibisten aurkako jazargoa utzi eta lotsaren harresia eraisteko" eskaera egin du Lasarte-Oriako Udalak.

Espainiako Estatuari eskatu diote bere erantzukizun historikoa bete dezan Mendebaldeko Sahararekin eta, besteak beste, Marokori armak saltzeari utz diezaion. Bertako baliabideak legez kanpo ustiatzeari uztea ere galdegin dute.

Erreferendumaren aldeko kanpaina

Saharako Lagunak taldeko Tomas Arrutik mozioaren alde agertu diren taldeak eskertu zituen osteguneko agerraldian. Halaber, Mendebaldeko Saharan erreferenduma egitearen aldeko kanpaina baten berri eman zuen. Suitzako talde batek bultzatuta, firmak bilduko dituzte 2017a bukatu aurretik galdeketa egin dadin. Lasarte-Oriara kanpaina ekartzeko asmoa dute eta, horregatik, behatzak urdinez margotu zituzten ostegunean.

EH Bilduko, Lasarte Oriak Ahal Du-ko eta EAJko ordezkariak izan ziren ostegunean egindako prentsaurrekoan, Saharako Lagunak taldeko kideez gain.

Urteurrena Lasarte-Orian

Aipatu bezala, otsailaren 27an kontzentrazioa egingo dute



Behatz erakuslea urdinez margotu dute, erreferendumaren alde sinatzearen ikur gisa.

Udaletxe aurrean 'Maroko Saharatik at, Independentzia Mendebaldeko Sahararentzat' lemapean. Udaletxeko balkoian bandera jarriko dute. Baina hori ez da izango egingo duten ekintza bakarra.

Hilaren 23an, asteartean, Hasana Aalia aktibista sahararrak hitzaldia emango du Furia Beltza tabernan 19:00etan. 27an, kontzentrazioaz gain, argazki erakusketa egingo dute Antonio Mercero aretoan

11:00etatik 13:00era. Gari-koitz Lasa donostiarrak errefuxiatu guneetan ateratako irudiak erakutsiko dituzte. Jakinarazi zutenenez, Elurtza tabernak egingo duen ekitaldia iragarriko dute egunotan.

30 urte eta milaka oroitzapen

Brigitarren komentuan meza egingo dute gaur goizeko hamaiketan

Gaur betetzen dira hiru hamarkada Lasarte-Oria udalerrigisa eratu zenetik. Larunbatean hasi zituen Udalak urtemuga berezi horren ospakizunak, Manuel Lekuona kultur etxean. Hainbat herritar gerturatu ziren ekitaldira, eta gogotik gozatu zuten Julian Sagardiaren bideo zein 'Gogoratzen duguna gara' diaporamarekin.

TXINTXARRI

Zeruan izarrik dan arte, bere buruaren jabe, beste erriren lokarri gabe, nai degu gure Lasarte". Horrela hasten da gure herriaren ereserkia, eta horrela hasi zuen Jesus Zaballos alkateak larunbateko ekitaldiaren aurkezpena. Duela 30 urte, gaurko egunez askatu zituen Lasarte-Oriak inguruko herrien "lokarriak", eta udalerrigisa eratu. Urtemuga berezi hori ospatzeko, Udalak hainbat ekintza prestatu ditu, iragan larunbatekoa tarteko.

Horren aurkezpentxoak egin zuen alkateak. Antxon Agirre Sorondo etnografo ezaguna zenaren liburuaren izenburua aipatu zuen: "30 urte eta hainbat mende. Horixe bera da betetzen duguna, gure herriaren historia ez baitzen hasi duela hiru hamarkada".

Lasarte-Oria, 1986

Historia ez zen urte horretan hasi, baina bai herriaren funtzionamendua udalerrigisara. Julian Sagardiak hainbat irudi grabatu zituen egun horretan, eta horiekin bideoa osatu.

Bideoak 1986ko otsailaren 15eko hainbat une erakusten ditu: Brigitarren komentuko udalbatzarra eta udalerrigiararen eraketa, Ana Urchueguia alkate izendatzearen unea, herri-meza eta Intza elkartean egindako herri bazkaria.

Bideoa proiektatu bitartean, etenik gabekoak izan ziren ikus-entzuleen zurrumurruek, askok atzo izan balitz bezala gogoratzen baitute egun historiko hori.

'Gogoratzen duguna gara'

Udalerrigisa 30 urte betetzen ditu gaur, baina alkateak larunbatean aipatu lez, gure herriaren historia askoz ere



lehenago hasi zen. Horrela frogatzen du 'Gogoratzen duguna gara' diaporamak, Julian Sagardiak berak eta Zero Sette akordeo orkestrak elkarlanean gauzatutako egitasmoak.

Argazki-bilduma zabalaz gozatu zuten herritarrek; Zero Settek musikarekin girotu zuten. Gaur meza egingo dute Brigitarren komentuan goizeko hamaiketan; orain 30 urte bezala, udal ordezkariak bertara joango dira.



Oroitzapen ugari ekarri zizkien ikusleei larunbat arratsaldeko ekitaldiak.

Umorea, dantza eta musika Jalgi Kafe Antzokian

Ikuskizun gaua izan zen pasa den ostiral gaueko Jalgi Kafe Antzokian. Lehenik, Nabarro ta Lauraren emanaldiaz gozatu zuten bertaratutakoek, eta Liher taldearen kontzertuaz ondoren. Umorea, dantza eta musika izan ziren osagaiak.

Nabarro ta Laura bikoteak umorea eta dantza uztartu zituen. Lehenengoak bakarriketa saio bikaina eskaini zuen, euskaraz, eta bigarrenak ekialdeko hainbat dantza estilo ekarri zituen Jalgiko oholtzatxora, sabel-dantza bereziki. Aitor Navarrok eta

Laura Muñozek osatzen dute bikote bitxi eta aldi berean ikusgarria. Inguruko hainbat areto eta tabernetan arituak dira bi artistak.

Liherraren emanaldi indartsua

Lide Hernando donostiarrak (Liher da izen artistikoa) hark konposatutako kantu-sorta aurkeztu zuen, taldeak lagunduta. Bakarlarigisa hasi zen Liher, baina kontzertuak eskaintzerakoan beste hiru taldekideekin batera aritzen da normalean. Aurreko urteko maiatzan 'Arrazoi gutxi, den-

bora asko' izeneko maketa grabatu zuen kantautoreak; bertako abestiak oholtzaratu zituen ostiral gauean Jalgin.

Artista donostiarrak hila-beteotan emandako hainbat elkarriketatara diska grabatzeko asmoa adierazi du.

Ostiral gaueko bi ekitaldiek harrera oso ona izan zuten; hainbat ikusle bertaratu ziren kafe antzokira, eta ez soilik lasarteoriatarak. Inguruko herrietako jendea ere etorri zen umorea, dantza eta musika osagai izan zituen koktelaz gozatzera.



Emanaldi indartsua eskaini zuen Liherrak ostiral gauean.

TXEMA VALLÉS

ZORU PELBIKOA LANTZEKO IKASTAROA

Gure gorputzaren kontzientzia hartu, zoru pelbikoan zentratuz baina modu integral batean Diafreoaren ikuspuntutik. Ikastaro prebentiboa, gerora etor daitezken arazo edo gora beherak identifikatzeko erraztasuna eduki dezagun.

Noiz: Asteleheneko taldea, otsailaren 22tik martxoaren 21 arte, 10:00-11:30

Astearteko taldea, otsailaren 23tik martxoaren 22 arte, 15:30-17:00

Non: Sanatana Dharma Yoga eskolan (Zumaburu kalea 12, beheka)

Matrikula kuota: 22€. Ttakuneko bazkideak 20€

Izen-ematea: Ttakuneko bulegoan, kultura@ttakun.eus, 943 37 14 48 (110) edo 695 785 392

*Ikastaroa euskaraz izango da. Emakumezko zein gizonezkoen zuzendua



ATLETISMOA.

LOKE, pista estaliko denboraldiaren fase erabakigarrian

Eneritz Bustok Espainiako absolutu mailako txapelketarako gutxienekoa lortu du

Azarotik martxo bukaerara arte jokatzen dute LOKEko atletak pista estaliko denboraldia. Egu-tegiari erreparatuta, fase erabakigarrian daude orain. Ate-joka ari dira jada Euskadiko txapelketa absolutua, eta baita Espainiako pista estalikoak ere. Orain arte primeran aritu dira Oscar Goikoetxeak prestatzen dituen neska-mutilak: lauk lortu dituzte jada Espainiakoetan aritzeko gutxieneko denborak. Eta are gehiago nahi dute.

INIGO GONZALEZ

LOKEko prestatzaile Oscar Goikoetxearen iritziz, denboraldi bat ona izan den ala ez neurtzeko indikadore fidagarriena da ikustea zenbat atletak lortzen dituzten Espainiako txapelketetan aritzeko gutxieneko markak.

Irizpide horri jarraituta, LOKE klubean aritzen diren atletak ederki ari dira pista estaliko denboraldian. Lauk lortu dute jada helburua: Eneritz Bustok 60 metro hesietan, Ane Galardik 60 metroetan, Yeray Veronizek 60 metroetan eta Maider Rekondok pisu jaurtiketan. Goikoetxearen aburuz, Idoia Olasagastik ere lortu dezake junior txapelketarako txartela, 200 metroetan.

Busto eta Veronizenak dira marka esanguratsuenak. Lehe-

nengoak Espainiako absolutu mailako txapelketan aritzeko gutxienekoa lortu du, aurten aurreneko aldiz. Behin baino gehiagotan gainditu du 8.95 segundoen langa hori; larunbatean are gehiago ondu zuen marka pertsonala, Euskadiko junior txapelketan, 8.88 eginez. Martxoaren 5ean eta 6an ariko da, Madrilan.

Veronizek Espainiako promesa txapelketan hartuko du parte asteburu honetan, etxetik gertu, Donostiako Belodromoan. 60 metroetan egiten du lasterka; 7.07 segundokoa da haren marka onena. "Lasterketa ona eginez gero, erronda bat gaindituko du seguruenik, eta oso ongi aritzen bada, finalerako ere sailka daiteke", adierazi du Goikoetxeak.

Ane Galardi eta Maider Rekondo Sabadellen ariko



LOKEko atletak ederki ari dira konpetitzen pista estaliko denboraldian.

dira, Espainiako junior txapelketan, martxoaren 19 eta 20an.

Fase erabakigarria

"Orain gaude pista estaliko sasoiaren fase erabakigarrian; balantzea martxo bukaerarako uzten dut. Hala ere, orain arte oso ongi konpetitu dute denek; iaz baino jende gutxiago ari da, Itoitz Rodriguez AEBtan ari baita aurten", dio Goikoetxeak. "Otsailean markak baloratzeak ez du askorako balio, entrenamenduetako lan

-kargak eragina baitu. Kirol gehienetan gertatzen den bezala, proba garrantzitsuenetara ahalik eta ondoen iristea da helburua", gehitu du.

Atletismo alorrak etorkizuna bermatuta duela esan daiteke, gaztetxoak maila "oso ona" hartzen ari baitira, Goikoetxearen hitzetan: "Naroa Furundarena eta Xalba Otxandorena ederki ari dira jauzi hirukoitzan eta hesietan, hurrenez hurren". Eskola mailan, neska-mutil gehiago dituzte aurten.

Pista berria Atsobakarren

Udalak berriki jakinarazi du Atsobakarren atletismo pista berria eraiki nahi duela. "Berri oso onak" dira horiek LOKErentzat, Goikoetxeak azpimarratzen duenez: "Ikaragarriko bultzada emango liguke pista berriak, alor guztietan, entrenamenduen maila asko igoko litzateke. Oraindik fase burokratikoan daude, baina proiektuak aurrera egiten badu, gure iritzia eman nahiko genuke, egitasmoan parte hartu".

JUDO.

Kadeteak bikain Zaragozan

LOKEko judo alorreko kadeteek txapelketa ezin hobea burutu zuten larunbatean, Monzalbarban (Zaragoza). Aragoiko Kopan hartu zuten parte hainbat gaztek, domina uzta oparoa ekarriz bueltan Lasarte-Oriara.

Urrezkoa kolkoratu zuen Ander Garridok, bi borrokaldiak maisuki irabazita. Bronzezko hainbat ere jantzi zituzten judoka gazteek. Yeray Mendibek finalera sailkatzeko borrokaldia galdu bazuen ere, ongi eman zion buelta emaitza horri eta hirugarren postua eskuratu zuen. Mikel Lasak orain arteko txapelketa onena burutu zuen, maila pertsonalean, eta hiru borrokaldi irabazita brontzezko domina jantzi zuen berak ere. Alex Saletak ere zakuratu zuen brontzea.

Jon Herrero eta Talib Bergarak bosgarren postuarekin konformatu behar izan zuten,



LOKEko hainbat judoka kadete aritu ziren Zaragozan, larunbatean.

eta Garikoitz Menak berriz, zazpigarrenarekin.

Monzalbarban bertan ariko dira Fermin Balda eta Eneko Eizagirre juniorrak, asteburu honetan, kategoria horretako Espainiako sektorean.

Olmosek zilarra Hernanin

Kadeteek Zaragozan lehiatu bitartean, Josu Olmosek Gipuzkoako txapelketa jokatu zuen, Hernanin. Primerako maila eman zuen herritarrak bertan, zilarrezko domina irabaziz.

KARTINGA.

Aitor Manso karting pilotu herritarra saritu du Euskadiko Automobilismo Federazioak

Euskadiko Karting txapeliduna izan da Aitor Manso gaztea, hirugarren aldiz segidan. Kadete mailan eskuratu zituen 2013 eta 2014ko garaikurrak, eta junior kategorian 2015ekoa. Euskadiko Automobilismo Federazioak saritu egin zuen herritarraren denboraldi paregabea, Zumarragako ermitan ospatutako galan. Erakunde horretako presidente Txema Cebrianek eman zion garaikurra Mansori.

Sei proba irabazi zituen Mansok (hiru Euskal Herrian eta beste hiru Kantabrian) 2015ean, 'Iparraldeko I. Karting Open' delakoa irabaziz. Euskadikoaz gain, Kantabriako Erret Automobil Elkarteak ere saritu zuen pilotu gaztea, urtarrilaren 17an. AVIA enpresak 1.000 euroko diru-laguntza eman dio Mansori, erregai-gastuak finantzatzeko.



Igo mailako seniorrak ederki aritu ziren Orioren aurka larunbatean.

Agenda

Asteazkena, 18:30ean, Manuel Lekuona Kultur etxea



Arreta falta eta hiperaktibitatea

ADAHIGI elkarteak arreta falta eta hiperaktibitatearen nahasteari buruz mintzatu da. Hitzaldiaren asmoa jarraibideak ematea da, nahasmendu hori duten haurrak antzemateko. gurasoek jakin nahi lukete noiz kezkatu, zer egin, nola diagnostikatu, haurrari nola lagundu... Galdera horiei eta beste gai batzuei buruz ariko dira ADAHIGI elkarteak.

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 19, 22:00etan

Okendo zinema taldearen eskutik, 'La novia' filma ikusgai izango da. Ostean, zine foruma egingo da. Sarrera, 5,50 euro.



MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 21, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, 'The Snow Queen' marrazki bizidunetako filma eskainiko da. Sarrera, 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 21, 19:30ean

Helduentzako zinea atalean, 'La novia' filma ikusgai izango da. Sarrera, 5,50 euro.

Lasarte-Oria

Itsaspeko Zinema Zikloa

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Gaur, astelehena, 19:30ean

Danok Kide elkarteak Real Sociedad taldeko itsaspeko sailaren laguntzaz Itsaspeko zinema zikloa antolatzen du. Saioan, 3 film labur eta film luze bat ikusiko dira. Horien artean euskaraz eskainiko den 'Ruta Molucas'.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astelehena 22, 19:30ean

Danok Kide elkarteak Real Sociedad taldeko itsaspeko sailaren laguntzaz Itsaspeko zinema zikloa antolatzen du. Saioan, film labur bat eta 'Arrecifes' film luzea ikusiko dira.

30. Urteurrena

AMA BRIGITARREN KOMENTUA

Gaur, astelehena, 11:00etan

Lasarte-Oria udalerrri gisa eratu zeneko 30. urteurrena ospatuko da. Lehen batzarra ama Brigitarren komentuko kaperan egin zenez, meza entzungo dute udal ordezkariak.



BATZAR-ARETOA

Gaur, astelehena, 12:00etan

Lasarte-Oriako lehen udalbatzarreko akta irakurriko da.

Irakurle Txokoa

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astearte 16, 18:30ean

Irakurle Txokoko kideek Daniel Sarriugarte idazlearen laguntzaz Katixa Agirre-ren 'Atertu arte itxaron' liburua aztertuko dute.



Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIAN

Otsailean zehar

Arantza Agirre segurarraren olio lanak ikusgai izango dira.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 20, 17:00etan

Glu Glu ekoizpen taldearen eskutik, 'Txanogorritxo' ipuin klasikoaren antzerkirako moldaketaz gozatzeko aukera izango da. Sarrera, 3,80 euro.



Herritarren txokoa

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean Otsailaren 29an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Biyak Bat bidaia

Biyak-Bat jubilatuen etxeak Sevilla eta Cacereserako bidaia antolatu du maiatzaren 20tik 29ra.

Hilabete bereko 27tik ekainaren 5era antolatuta zen beste bat, baina autobusa bete da dagoeneko. Interesatuek izena eman beharko dute astelehenean ostiralera 10:30etatik 12:30etara.

Galdutako betaurrekoak

Ikusteko betaurrekoak galdu ditut Sasoeta ibilbideko paseoan, N-1 errepide parekoan edo Plazaola bidean.

Aurkitzen dituenak mesedez jarri harremanetan honako telefono zenbakian, 600 67 78 72 (Axun).

Karteta jolasteko taldea

Emakume heldu bati larunbata arratsaldetan kartetan (mus, truke...) jokasteko taldea sortzea gustatuko litzaioke. Interesa duena jar dadila harremanetan honako telefono zenbakian 21:30ak baino lehen: 943 36 33 71, Ana.

Eskutitza

Bizikidetza Berreraikitzen jardunaldiak

Egin dira Bizikidetza Berreraikitzen jardunaldiak. Indarkeria guztien Memoriari buruz aritu zen Krakenberger eta torturaren ikerketaren berri eman zuen Etxeberriak. Gero eta argiago dago zein izugarria den gutxiengo batek sortu dezakeen sufrimendua. Bakar batzuk gure bizilagunak hil dituzte edo hauen hilketak justifikatu dute, beste gizaki batzuei torturuak jasanarazi diete, baita pertsonen duintasuna bortxatu ere.

Elkarbizitza ez da bera bakarrik sortzen. Egunero-egunero pertsona guztien artean lortzen dugu, gutxi batzuen ekintzek suntsitu egin badezakete ere. Hala ere, badakigu elkarbizitzaz hitz egiteak, nola hondatu den ikusteak edo nola konpon daitekeen gogoetatzeak, elkarbizitzan aurrera pausoak dakartza, baita gatazka sortzen dutenei atek ixtea ere.

Udal jardunaldiei buruzko balorazioa oso positiboa da guretzat. Hasiera ona, aurrera begira gertatutakoaren Memoria osorik gorde behar badugu gure arteko bizikidetza bideragarria

egiteko. Horrexegatik, euskal gizarte-kideei egindako kalte guztia azaltzen saiatu behar dugu.

Dagoeneko, lan hori garatzen ari gara Lasarte-Oriako eta bailarako ELKARBIZI taldekook. Bizikidetza sendotzeko beharrezkoak diren zenbait gai aztertu ahal izango ditugu gure ikastaroetan.

Hala nola, memoria eta historia, komunikabideen eragina eta justiziarren papera elkarbizitzaren hobekuntzan.

Baita beste gai batzuen inguruko hitzaldiak ere. Gutxitan aipatzen diren arren, denok ezagutzen dugu zerga iraultzaileak edo jazarpen indarkeriak egindako kaltea eta sortutako torturatu lazgarria bertako herritar eta familietan. Ez ditugu indarkeriaren adierazpen kaltegarri hauek jorratu gabe utzi nahi. Hauen memoria zabaltea ere beharrezkoa baita.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48

txintzarri@txintzarri.eus

Pello Sasiain,
Elkarbizi taldearen izenean

Naiara Garcia Psikosolidarioak proiektuko psikologoa

Arreta psikologikoa denon esku

Arazo ekonomikoak dituzten pertsoneri arreta psikologikoa eskaintzen diete Psikosolidarioek

Doako eta kalitatezko osasun zerbitzuaren garrantzia gutxi jarzen dute ezbaian. Arreta psikologikoari dagokionez, aldiz, eskaintza ez da beharko lukeen bezain egokia. Hala uste dute, behintzat, Psikosolidarioak proiektuko kideek. Horietako bat, Naiara Garcia Polo, lasarteoriatarra da, eta hasieratik egin du bat proiektuarekin.

Martin VICIOSO

Psikosolidarioak izeneko proiektua zenbait psikologo gipuzkoarren kezkatik sortu zen. Arazo ekonomikoak jasaten dituzten pertsonak behar bezalako arreta psikologikoa ez jasotzekatzen zituen.

Naiara Garcia lasarteoriatarra azaldu duen moduan, Madrilgo Tabakalerako proiektu batetik abiatu zuten Psikosolidarioak. "Ezagutu eta gustatu zitzaigun bertan ikusitakoa, baina geurera gure ikuspegi eta ideiekin ekarri dugu".

Izan ere, gaur egun Osakidetza eskaintzen duen zerbitzua ez da nahikoa psikologo gipuzkoar talde honentzako. "Batetik, hilabete behineko hitzordua ematen dizute eta, bestetik, 45 minutu inguruko saioak izaten dira". Ez omen dira ganorazko artatzea aurrera eramateko baldintza egokiak.

Iraupena eta saio kopuruaz gain, arazo gehiago dituzte. Osasun publikoak, askotan, ez ditu artatuak dagozkien espezializazio psikologikoan aditu diren profesionalen esku uzten, Psikosolidarioak taldekoen ustez.

Luxua ez, eskubidea

Psikologia sektore pribatura lotua dago gehienbat. Laguntza psikologikoa behar duenak, normalean, klinika pribatuetara jo izan du. Horregatik, "baliteke jende askok luxuzko zerbitzua balitz bezala ikusi izana".

Psikosolidarioak proiektuak kontrakoa aldarrikatzen du. Hau da, artamendu psikologikoa eta osasun mentala ez direla inolako luxua, behar bezala heldu ez zaion beharra baizik.

Gizarteak soilik ez du irudipen hori, erakundeek ere

hori babestu izan dute psikologia osasun publikoan "bigarren lerroa" eramanez.

Denbora, txanpona

Garbi zuten, besteak beste, eskainiko zuten zerbitzua doakoa ezin zela izan. Garciaeren ustez, "menpekotasun egoerak" sortuko lirarteke bestela.

Denbora bankuaren antzekoa den sistema diseinatu dute, artatuen abileziak ere landuko dituen. Interesa duen pertsonak zerbaite eskaintzen du saioen trukean.

Denbora bihurtu dute txanpona, eta salneurria orduak dira. Azaldu dutenez, "terapeutikoa" suertatu daiteke sistema bera. Izan ere, autoestima arazo ugari topatu dituzte, eta askok ez daki zer eskaini dezakeen. "Haien abileziak landu eta zer ekarpen egin dezaket bilatzen dugu".

Horregatik, ez da sistema hertsia. Hasiera batean, baliteke norbaitek ez jakitea zer eskaini. Denbora emango diote zehazteko.

Artatzailearen eta artatua- ren arteko harremana zaintze bidean, truke horretako baldintzak ondo definitu dituzte. Izan ere, "ez da komeni terapeuta bera izatea zerbitzuaren onuraduna, artatze erlazioan sor daitekeen kutsadura dela-eta".

Parte hartzaileak

Terapeuta bezala proiektuan murgildu ahal izateko eremu profesionalen aritzeko baldintza berak eskatzen zaizkio psikologoari. Hau da, ikasketak amaituak izan behar ditu, elkargoko kide izan, etab.

Arrazoia argia da. "Beste edozein klinika edo kontsultan emango luketen zerbitzua" eman nahi dute.

Norbaitek Psikosolida-



Psikosolidarioak taldeko kideen talde argazkia, webgunea finantzatzeko egindako jardunaldian.

rioren proiektuan parte hartu nahiko balu, dokumentu batzuk aurkeztu beharko lituzke. "Sistema ez kolapsatzeko arrazoiarekin" egiten dute, izan ere, baliabide mugatuak dituzte.

Terapeuta bakoitzak bere lana izaten du, eta beraz, denbora aldetik mugak dituzte. Bestetik, proiektuarentzako berezko lokalik ez dute.

Espazio bila

Orain arteko arrakastak arazo bat ekarri die: espazio falta. Kontsulta pribatuetan jasotzen dituzte proiektuko pazienteak, eta hauen kopurua handitzen doan heinean, zailagoa egin zaie eguneroko lan karga eramangarria izatea.

Horregatik, lokal bila hasi dira. Proposamen batzuk jaso dituzte jadanik haiena eskainiz, baina oraindik ez dute lortu akordiorik.

Garcia azaldu duenez "ez dute diruarekin lan egiten" eta, beraz, lokala utziko dien boluntario baten bila daude. Halaber, webgunearen zerbitzaria ordaindu ahal izateko diru bilketa saioa egin zuten Donostian.

Eraldaketa sozialerako tresna

Psikologiaren munduan lan egiten duten pertsonak osatzen dute Psikosolidarioak, baina atzean dagoen filosofia arlo askotara hedatu daiteke.

Lasarteoriatarra azaldu duenez, "bizitza eta harreman ekonomiko eta profesio-



Naiara Garcia lasarteoriatarra proiektuko kidea da.

nalak ikusteko modua" isladatzen du.

Ikuspegi horren baitan, elkartasun sarea osatuko litzaiteke norbanako bakoitzaren ekarpenak baliatuta.

Ikasleekin lanean

Proiektuari forma ematean, ikasleei bertan praktikak egiteko aukera ematea pentsatu zuten.

"Ikasle praktikadunek, gehienetan, ez dute prozesu terapeutikoa hasieratik bukaerara ikusteko aukerarik".

Hala ere, ez dute lortu hasiera bateko asmoa betetzea. Terapietan, artatuaren baimenarekin, ikuskatzaile rolean ipini nahi zituzten, baina ez da posible izan.

Beste alternatiba bat lortu dute psikologia ikasleen formakuntzan lagundu ahal izateko.

Hirunaka elkartzen dituzte eta terapia saioak simulatu. Terapeuta, paziente eta ikuskatzailearen rola antzetzuz, benetako egoeren gainean lan eginez.

"Nahiz eta egiazko pazienteak ez izan, prozesua hasi eta bukatzen dugu, kontsultan baleude bezala", dio Garcia.

Psikosolidarioak asko hazi da lanean hasi zirenetik. Psikologiaren adar askotan espezializatutako profesionalak aritzen dira, eta gero eta paziente gehiago lortu dituzte.

Erakundeengandik laguntza ekonomikorik jaso nahi ez dutenez, beharrezkoa dute kolaborazioa jardueraren aurrera eramanez ahal izateko espazioak lortzeko, adibidez.

Osasun zerbitzuak beste modu batera uler daitezkeela uste dute eta, pixkanaka frogatuz, aurrera doaz.

"Osasun publikoak eskaintzen duen psikologia arreta eskasa da. Hilean behineko saio motzak egiten dituzte, espezializazioan arreta jarri gabe"